

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuak aldaketa klimatikoa hobetzeko, birziklatzea baliabide bezala hartzen duelarik, birziklatu nahi duen oro izango da gure bezeroa. Haien ezaugarriei dagokienez, batik bat aldaketa klimatikoari aurre egiteko, gaiari buruzko ezagutza garatzeko, honi buruzko kexak edo hobekuntzak defendatzeko... inizatiba izan beharko lukete. Kontuan izanda haiek gabe enpresak ezingo lukeela aurrera jarraitu, kontuan hartu beharko ditugu uneoro, haien eskaerak, hobekuntza proposamenak zein kexuak.

Hori guztia ondorioztatuz, gure merkatu mota masiboa izango da. Izan ere, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen taldea aurki daiteke bezeroen artean. Zehaztuz, denek helburu nagusi bat dute: klima aldaketari aurre egin eta birziklatzen laguntzea.



Hala ere, gure aplikazioa erabiltzen arituko den jendea imajinatzerakoan, bezero aktibistak bezala imajinatzen ditugu. Horrez gain, gure artean animatuko dugun jendea, gure gertukoak baita interesa izango duen edozein. Ez ditugu zergatik adin zehatz bateko bezeroak erakarri behar. Hala ere, ekintza hauek gauzatzeko (aplikazioko ataletan parte hartzeko edonor baita gai). Bestalde, egia da aplikazio bat delarik, hau erabiltzeko gaitasuna eta baliabideak izatea ere badirela gure bezeroen ezaugarrietako batzuk.

Bezeroak pertsona bakarrak imajinatzen ditugun arren, enpresak ere laguntza emaila izan daitezke. Kolaborazioak egiterakoan, laguntza garrantzitsu bat iruditzen baitzaizkigu enpresak. Bai haiek publizitatea egiteko, bai haien "merchandaising"ean salmenta ekologiko bat izateko.

Lehen aipatu bezala, ez dugu bezero prototipo zehatz bat. Beraz, bezero talde ezberdinak egon daitezke. Horren aurrean, atal ezberdinak jarri ditugu aplikazioan, nahiz eta aplikazioa denentzat eskuragarri izan, bertan bezero talde bakoitzak bere atala izan dezan. Hori dela eta, hiru urte gorakoentzat joko bat asmatu dugu. Bertan, zaborrontzi ezberdinak egongo dira eta hainbat hondakin agertuko dira ukipen-pantailan, bakoitzari egokitzen zaion ontzian sailka ahal izateko. Bestalde, gazte aktibistek, kexuak eta proposamenak eskaintzeko iruzkin-kutxa bat aurkituko dute. Azkenik, helduak beste atal bat izango dute eskuragarri, hor hainbat albiste izango dituzte.